ABENDUKO «ADISKIDETZA SAKRAMENTUA» (2023)

Girotzeko berbak

Senideok: oraindino «*Alkarte Penitentiza*» deitzen deutsagun arren, hobe geuke «**Adiskidetza Sakramentua**» deituko bageutso.

Zergaitik? *Penitentzia* dinogunean "pekatariari" begira gagozalako; eta honek damutu beharra, eta hoben nekea betetea dauala beharrezko parkamena lortzeko, dogu uste. Horrela, parkamena geure ahaleginen meritu edo ondorio dala uste dogu.

Eta zenbat autortzatatik urten dogun horrela!: asko kostatako gauza bat egin dogula, eta Jainkoaren aurrean meritu handia daukagula uste izanik… Edo, asko autortzatik urrundu egin dira, gizonezko bati bere pekatuak esan beharrik ez daukala-eta. Aldatu ahal izango ete dogu?

Gaurkoan, erdiko ez da *pekataria* izango; ez naz neu izango erdiko, izan behar dauana baino: Jainkoa. Ha apur bat gehiago ezagutzeko aukerea izango dogu, eta, gehiago ezagutuz, maiteago izateko. Zer beste bilatu behar dogu? Ez ete dogu horrela gugandik hurrago ikusiko?

Isil unetxo baten, ba, esan deiogun geure buruari: *ez dot nire pekatuaz arduratu behar, parkatuta dago*. *Ezagutu daidan Jainkoa apur bat gehiago, maiteago izan daidan*. Hauxe da Jesus Jaunak emoten deustan aukerea. Eta hurrago sumauko dot nigandik. Zatoz, Jauna!

Ohargileak

Senideok: ez dogu meriturik irabaziko; ez dogu parkamena irabazi edo lortuko. Jainkoaren guganako ardurea ospatuko dogu; guganako maitasuna eta begiramena dastatuko doguz; gugandik hurrago sumauko

dogu. Geure sinismenari esker, parkatuak dagoz gure pekatuak eta Jainkoaren pozez bete geintekez. Jarri daigun geure aldetik eskatzen jakuna, gogotsu esku hartuz, abestuz, erantzunak emonez, adi egonez.

Sarrera abestia

Zatoz, Jauna! Gaur zai duzu mundua,
zori gaitzez hain da hondatua!
Zatoz, Jauna! Zabal, otoi, zerua:
Etor bedi zure erreinua!

Zatoz Jauna! Nausi bait da dirua:
jendea maiz dauka zapaldua.
Entzun, Jauna, behartsuen oihua:
Etor bedi zure erreinua!

Zatoz, Jauna! Hor gabiltza gauez gau:
piztu gugan fedearen sua.
Zatoz, Jauna! Argi ezazu mundu hau:
Etor bedi zure erreinua!

Zatoz, Jauna! Maitasunez gu bete:
jendeek elkar ezin hartu dute.
Zatoz, Jauna! Zuk bat egin mundua:
Etor bedi zure erreinua!

Abadearen agurra

† Gure ardurea daukan, maite gaituan eta bere ondasunez beteten gaituan Jainko Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

—Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Salmoarekin otoitzean

Jesusek otoitz salmoekaz egiteko ohiturea eukan. Zer aurkitzen ete eban euretan?

Hori gogoan izanik egingo dogu otoitz 26. salmo honegaz, gure uste on osoa Jainkoagan dogula sumatzeko. Ea barru-barrutik urteten deuskun.

Isil uneak tartekatuko doguz, mamurtu ahal izateko.

Sal 27 [26], 1. 2. 3. 4. 5.

R/. Jauna dot argi eta salbamen.

Jauna dot argi eta salbazino,

nork ni bildurtu?
Jauna biziaren babes,
nork ni izutu? R/.

Gaizkileek erasotzen deustenean, ni irunsteko,
eurek, nire etsai eta arerioak,
laban egin eta jausten dira. R/.

Gauza bakar bat eskatzen deutsat Jaunari,
horixe baino ez dot amesten:__
Jaunaren etxean bizi izan naitela bizitza guztian,
Jaunaren edertasunari begira
eta haren tenpluaren zaindari. R/.

Bere aterpean gordeko nau zoritxar-aldian,
bere txabolako gordeenean ezkutatuko,
bere harkaitz gainera jasoko.
Horrela, burua tente eroango dot
inguratzen naben etsaien aurrean. R/.

Esaldiren bat ahoz goraz esan geike…

Bigarren zatia

Uste on osoa Jainkoagan jarrita euki arren, sarritan egoten gara nora-ezean, galduta, edo erasopean eta jausteko arriskuan.

Otoitz egiteak, Jainkoak ez gaituko ahazten eta geure ondoan dagoala somatuazoten deusku. Eta lasaitu egiten gaitu.

R/. ZEURE ESKUETAN DOT BIZIA
ASKATU NAIZU, JAUN HANDIA

Entzun, Jauna, deika naukazu!
Erruki nitaz eta erantzun!
Bihotzak hauxe dinost:
«Ea, bilatu Jaunaren aurpegia». R/.

Zure aurpegiaren bila nator, Jauna.
Ez gorde niri zure aurpegia!
Ez baztertu zure morroi hau haserrez,
laguntza bakarra zeu zaitut-eta! R/.

Ez ni bertan behera itzi, ez hondatu,
salbatzaile zaitudan ene Jainko horrek!
Aita-amek hondatzen banabe ere,
Jaunak beragaz hartuko nau. R/.

Erakutsi, Jauna, zure bidea,
eroan naizu bide zuzenetik,
etsaiak ugariak dodaz-eta. R/.

Ez itzi ni etsaien eskuetan,
nire aurka lekuko guzurtiak jagi dira-eta,
indarkeriaz gainezka. R/.

Ziur nago ni:
Jaunaren ontasuna gozatuko dot
bizien lurraldean. R/.

Itxaron Jaunagan!
Eutsi gogor, izan kemen!
Itxaron Jaunagan! R/.

Esaldiren bat ahoz goraz esan geike…

Ebanjelioa (Mt 18, 12-14)

Ze berba gitxi behar dauzan Mateok Jainkoaren guganako ardurea iragarteko: berba xamurrak, erakargarriak… Entzungo bagenduz!

Egin deiogun harrerea Aleluia abestuz, zutunik.

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi haretan, Jesusek esan eutsen ikasleei: «Zer

deritxozue? Gizon batek ehun ardi baditu eta bat galtzen bajako, ez ete da laurogeta hemeretziak mendian itzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badau, benetan dinotsuet, poz handiagoa izango dau bakar hagaitik, galdu ez diran laurogeta hemeretziakaitik baino. Era berean, zeruko zuen Aitak ez dau gura txiki honeetariko bat be galtzerik».

Jaunak esana.

HAUSNARKETA — JAINKOAGANATZEA — ERAGINA

1) Senideok: helduko ete gara inoiz Jainkoa jartera "erdiko"? Hauxe esan gura dot: Haren aurrean gure meritu guztiak ezer ez dirala autortzera.

Gauza handitzat daukagu errezatzea, edo limosna egitea, edo ondokoei ondo esatea, edo txarrik ez egitea… Eta ez gara konturatzen, horrela jokatuz geure burua abonatzen dihardugula. Eta ez gagoz inoiz pozik edo asebeterik, gehiago edo hobeto egin geikelako, edo hutsen bat izan dogulako…

Jainkoa jarriko bagendu "erdiko", eta merituak egiten edo puntuak irabazten baino, harenganako gure uste ona agertzen errimeago ekingo bageutsa…

Orduan, behar bada, hauxe baino ez litzateke izango gure otoitza:

**Jauna, zuganako nire uste ona
handiagoa izan daitela egunerik egunera**

Eta nahikoa izango litzateke, bereak izango liratekelako gure ardura guztiak.

(*iziotu kandela bat*)

2) Helduko ete gara Jainkoa *kanpotikoa* lez barik geure barruan dana lez autortzera? Ez dau inondik etorri beharrik: barruan daroagu, baina ez dogu ezagutzen.

Dei egiterakoan, esan deiodan neure buruari, apalek eta baztertuek eta bila dabiltzanek aurkitzen dabela Jainkoa

euren barruan. Eta ez dala besterik egin behar, barrura sartzea galazoten deuskuen sasi guztiak kendu baino (norbere burua abonatzea, besteen gainetik egon gura izatea, norbere izakerea ezkutatzea, guzurretan bizi izatea, norberea besterik ez ulertzea; eta abar, eta abar.

Orduan, behar bada, hauxe baino ez litzateke izango gure otoitza:

Jauna, zuganako nire uste ona
handiagoa izan daitela egunerik egunera

Eta nahikoa izango litzateke, bereak izango liratekelako gure ardura guztiak.

(*iziotu kandela bat*)

3) Helduko ete gara beste hau ulertzera: ez daukagula ahaleginik egin beharrik; izteak hainbesteko mina emoten deuskuen gauzak itzi beharrik, edo geure burua alperreko zigorrez zigortu beharrik…

Honexegaitik: Uste on osoa Jainkoagan jarrita izan ezkero, gure bizitzaren erdian bera izan ezkero, berez sortuko litzatekelako gure barrutik harenganako esker ona azaleratzea, horixe eta ez beste ezer litzatekelako gure zorion-iturri.

Orduan, otoitzak, Jainkoaren berbeaz asetzeak, garrantzi handia hartuko leuke;

…eta baita haren onurak iragarteak, partekatzeak eta ospatzeak ere…

…eta eleiz alkartekide izateak, eta ondokoak adoretzeak, eta errespetatzeak eta zerbitzeak…

Edozein beharrizan edo hondamen, neure ondasunak jokoan jarteko egiten jatan dei lez hartuko neukez, eta ez inor kritikatzeko eta gaitzesteko aukera lez.

Orduan, behar bada, hauxe baino ez litzateke izango gure otoitza:

Jauna, zuganako nire uste ona
handiagoa izan daitela egunerik egunera

Eta nahikoa izango litzateke, bereak izango liratekelako gure ardura guztiak.

(*iziotu kandela bat*)

Adiskidetza zeinua

Gure uste ona Jainkoagan jarrita daukagula autortu ondoren, otoitzean murgildu gara Salmoagaz, eta babestu gaizala eskatu deutsagu Jainkoari.

Badogu horren ziurtasuna, fedeari esker: Jainkoak beti babesten gaitula.

Eta badakigu, ebanjelioari esker, harengandik aldentzen bagara, geure bila urtengo dauala, aurkitu arte, ez gaitulako galtzen itziko. Eta poz handiz hartuko gaitula bere besoen artean.

Urten daigun, ba, gure lekutik. Jarri gaitezan abadearen aurrean, eta autortu daigun Jainkoaren esanetara bizi izan gura dogula, eleiz alkarte bizi eta abegikor izateko. Esan daigun abadearen aurrean: **Hartu naizu, Jauna**.

…/..

HERRI OTOITZA (*Iziotu kandelatxo bat*)

Jainkoaren besarkadea sumatu ondoren aurrera begiratu gura dogu, otoitzak bultzatuta, haren deiak entzuteko eguneroko egoeretan. Aurkeztu deioguzan gure gurariak, Jaunaren etorrerea aldarrikatuz:

—Eleizearen alde: aurkitu deieen urtenbidea gaur egun mahairatzen jakozan arazoei: emakumearen duintasuna eta abadetza; ezbardinenganako errespetua eta harrerea; pobre eta baztertuen ardurea…

ZATOZ, ETA SALBAU GAIZUZ!

—Klimaren aldakuntza dalata, kontsumoa murriztu daigun, hondakinak birziklatu eta zaborrik gitxien eragin…

—Ukraina-Errusia eta Palestina-Israel gogoan izanik, bake-eragile agertu gaitezan, eta adiskidetza eta parkamena sustatu daiguzan gure inguruan…

—Merituak bilatzetik aldendu gaitezan, eta uste on osoa Jainkoagan jarriz ha ezagutzeko aukerak aprobetxatu daiguzan…

…

Egin daigun Jesus Jaunagaz bat harek irakatsitako otoitza esanez:

GURE AITA ZERUETAN ZARANA…

…

Jainkoak emon deuskun besarkadea ondokoari luzatu deiogun, bake-zeinua erabiliz:

* Emoiozue bakea alkarri.

Azken hitzak

Hemen ospatu eta partekatu doguna geure inguruetara eroan daigula. Emon deiogun bueltatxo bat hausnarketa eta otoitza erabiliz, Jainkoagan dogun uste ona handiagotu dakigun.

Kanta daigun guztiok bihotza betean
gure Salbatzailea etorri artean.

[1] Gauaren erdian da entzun deadarra:
«Erne egon gaitezan ba dator Senarra!»
[2] «Nausia ba dator-ta lapurra bezala:
Jaunaren zain guztiok aurkitu gaizala.»

Onespena

† Jauna zuekin.

—Eta zure espirituarekin.

† Bedeinka zaizela Jainko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak eta Espiritu Santuak.

—Amen.

† Jainkoak adiskidetu egin zaitue. Zoaze Jaunaren bakean.

—Eskerrak Jainkoari.



Arratian, 2023ko abenduan